



## MOZIOA

### BIDASOA OSPITALEKO BLOKE KIRURGIKOAREN BERRITZEA

Azken asteetan komunikabideetan bolo-bolo ibili da Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoa berritzeko lanen gaia. Batez ere komunikabideen bitartez iritsi zaigunez, lau kirofanoz osaturiko bloke kirurgikoa berritu nahi du Osakidetzak, obra 2022ko udaberrian hasiko litzateke, eta obra dirauen bitartean (18 hilabetez gutxienez), eskualdea kirofanorik gabe geratuko litzateke, zerbitzu hori Donostia ospitalera edota Onkologikora bideratuko bailitzateke. Ez dago esan beharrik gaixoentzat eta haien senideentzat zer zailtasun suposatuko lukeen horrek, kontuan izanik gainera zein gaizki komunikatuta dauden gure udalerrriak Donostiako ospitaleekin.

Bidasoa Ospitaleko langileak haserre azaldu dira plangintzaren aurrean. Haien aldarrikapenen bitartez jakin izan dugu ez daudela ados kirofanoak ixtearekin, eta alternatiba desberdinak proposatu izan dituzte zerbitzu hori eten ez dadin. Horien artean bloke berri bat eraikitzea proposatu izan da, obrak bukatzen direnean kirofanoak bertara trasladatzeko eta egungo blokeari beste erabilera bat emateko. Hala, obrak dirauten bitartean kalterik sortu ez eta, obrak bukatuta, ospitaleak espazio bat irabaziko luke.

Alternatibetan sakondu gabe, besteak beste ez dugulako egin nahi denari buruzko informazio nahikorik, Bidasoa bailarako herritarrek pairatuko lituzketen ondorioak argiak dira. Bi aipatzearren: Batetik, larrialdietan anbulantziak egin beharreko distantzia eta denbora asko luzatuko lirateke. Eta bestetik, ebakuntza ostekoa herritik hain urruti egiteak senideei enbarazu handia eragingo lieke, bai denboran, bai ekonomikoki. Eta horri gehitu behar zaio Bidasoko Ospitaleko langileek eta erietxeak berak pairatuko luketena, langileetako batzuk Donostiara mugitu beharko luketelako.

Ez dezagun ahaztu nondik gatozen, azken bi urtetan denok sufritu izan dugun osasun-larrialdian zehar herritarrek pairatu behar izan dutena, eta oraindik pairatzen ari direna: arreta telefonikoa, itxaron zerrenden luzatzea, amaigabeko protokoloak... Herritarrak kexu dira pandemia hasi zenetik behar bezalako arreta izan ez dutelako. Eta horri, orain, eskualdeak bi urtez kirofanorik gabe geratzea ekarriko lukeen obra gehitu nahi zaio.

Horregatik guztiagatik, Abotsanitz Udal Taldeak lau puntuz osaturiko mozioa onartzeko eskatzen dio Udalbatzari:

- Hondarribiko Udalak Osakidetzari eskatzen dio Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoa berritzeko plangintza berraztertu dezala, berritze lanak burutzen diren bitartean Behe Bidasoa eta Bortziriak eskualdeetako herritarrak Bidasoa bailaran zerbitzu hori gabe geratu ez daitezen.
- Hondarribiko Udalak Osakidetzari eskatzen dio Bidasoko Ospitaleko langileen ordezkariekin eta udalerriekin adostu dezala bloke kirurgikoa berritzeko plangintza nola diseinatu, obrek irauten duten bitartean ospitaleak, langileek eta herritarrek ahalik eta kalte txikienak pairatu ditzaten.
- Hondarribiko Udalak Osakidetzari Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoa berritzeko plangintzari buruzko informazio osatua eskatzen dio, eskualdeari zein ondorio eragingo liokeen jakin eta alternatibak landu ahal izateko.
- Hondarribiko Udalak mozio honen onartzearen berri emango die Bidasoa Ospitaleko zuzendaritzari, eta Osakidetzako arduradunei.

Hondarribia, 2021eko Urriak 22